



Lezoko Unibertsitateko Udala

Lezoko Unibertsitateko Administrazio Orokorreko Teknikarien lan-poltsaren eraketa arautuko duten Oinarriak.

Lehenengoa. Deialdiaren xedea.

Oinarri hauen xedea Lezoko Udalean lan egiteko zuzenbideko lizentziatuen lan-poltsa eratzeko hautaketa-prozedura arautzea da.

Lan-poltsa osatzeko merezimendu eta gaitasun printzipioak nahiz egokitasun-irizpideak hartuko dira oinarritzat, betiere, publizitatea eta lehia bermatuz.

Bigarrena. Eginkizunak.

Orokorrean Administrazio Orokorreko Teknikari batek dituen eginkizunak badira ere, hasiera batean, aurreikusten den lan-poltsaren lehen erabilera hirigintza, obra eta zerbitzuen arduradun lanpostua urte betez (luzagarria beste urte betez) behin behingoz betetzea denez, aukeraketa honetan lanpostu horren eginkizunak izango dira kontutan. Hauek dira eginkizun nabarmenenak:

1. Zuzendaritza.

Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak departamentura atxikitako langileen lana antolatu eta zuzentzea jarraibideak, lehentasunak eta kontrol sistemak ezarrita.

Departamentuko zereginak eta proiektuak gauzatu, zuzendu eta koordinatzea.

Departamentuko zereginak eta proiektuak gauzatzean lorturiko emaitzak kontrolatu eta ebaluatzea.

2. Defentsa juridikoa.

Bere eskumen-eremuko gaiekin zerikusia duten auzietan defentsa juridikoa bere gain hartzea.

3. Aholkularitza.

Hirigintza-planeamendu eta kudeaketarekin loturik dauden proposamenak aztertu eta horiei buruzko txostenak ematea.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Hirigintza-planeamenduari buruz udaletik nahiz kanpotik egiten zaizkion galderei erantzutea eta aholku-ematea.

Arautze-planen eta bestelako arautze-tresnen gaineko txostenak egitea.

Hiritartze-proiektuei buruzko txostenak egitea.

Konpentsazio-, birpartzelatze- eta desjabetze-proiektuen gaineko txostenak egitea.

Obra handiak, urbanizazio osagarria, lehen erabilera, aurria, eraistea, egiteko aginduak eta bestelako espedienteen gaineko txostenak egitea eta eragindakoak zein herritarrak hartzea horiekin loturiko kezkak direla eta.

Jarduera-lizentzien gaineko txostenak egitea.

Bere departamentuko gaietan lege-aholkuak ematea idazkariarekin elkarlanean.

Beste departamentuetako gaietan lege-aholkuak ematea, idazkariarekin elkarlanean eta, betiere, alkateak horretarako ezarritako lehentasun-irizpideei jarraiki.

4.Gestioa.

Hiria antolatzeko planeamendu orokorra garatu eta egokitzeko proposamenak plazaratu eta hiriaren hazkundera tresna horren arabera bideratzea.

Planeamendu, gestio eta hiritartze dokumentuak izapidetzea.

Hirigintza-jarduerarako sistemak gestionatzea.

Hirigintzako hitzarmenak kontrolatzea.

Orube- eta eskualdaketa-erregistroak kontrolatzea.

Udalaren lurzoru-ondarea kudeatzea.

Desjabetze espedienteak tramitatzea.

Lanak hasieratik bertatik (zuinketa akta) guztiz amaitu arte (lehen erabilera) berak ikuskatzea behar beste ikustaldi eginda.

Berdin jokatzeko salaketarik izatekotan edo eraikinek zaintze arazoak izanez gero (aurriak, egiteko aginduak,...).

5.Harremanak.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Banakoekin, sustatzaileekin, profesionalekin, udal sailekin eta beste erakundeetako ordezkariekin harremanak izatea, informazioa trukitzea eta ekintzak koordinatzea, udala ordezkatzuz.

6. Bere kategoriaren arabera agindutako beste lanak.

Hirugarrena. Izangaien baldintzak.

Lehiaketa-oposaketan parte hartu ahal izateko, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- a) Europar Batasuneko edo horrela hitzartutako beste estatu bateko herritarra izatea.
- b) Adina: Hamasei urte beteta izatea eta nahitaezko erretirorako gehienezko adina beteta ez izatea.
- c) Zuzenbidean lizentziatu titulua izatea edota hori lortzeko ordaindu beharrekoa ordainduta edukitzea.
- d) Euskarazko 4. Hizkuntza Eskakizuna izatea.
- e) Lanpostuaren eginkizunak normaltasunez betetzea eragotziko lukeen gaixotasunik edota akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.
- f) Diziplina espediente bidez estatuko, autonomi erkidegoetako edo toki-erakundeetako zerbitzutik kanporatu ez izana; eta funtzio publikoak betetzeko ezgaitua ez izatea.
- g) Inolako ezgaitasun edota bateraezintasunezko lege-kausaren batean sartua ez izatea, Herri Administrazioen zerbitzuan diren langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusita dagoenaren arabera.

Baldintza horiek guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete behar dira.

Laugarrena. Eskabideak.

Eskabideak, Lezoko Unibertsitateko Udaleko Informazio Bulegoan emango den eredu ofizial eta normalizatuari egokituko zaizkio. Oinarri hauetan ere badator I. Eranskin moduan.

Lehiaketa-Oposizio honetan onartuak izateko eskabideak, Lezoko Unibertsitateko Udaleko alkate-lehendakariaren izenean bidaliko dira eta ondorengo baldintzak bete beharko dituzte, baztertuak ez izateko:



Lezoko Unibertsitateko Udala

a) Izangaiek adieraziko dute deialdiaren hirugarren oinarrian eskatzen diren baldintza guzti-guztiak beteta dituztela, beti ere, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako.

Era berean, lehiaketa atalean baloratuko diren merezimenduei dagozkien datuak ere adierazi beharko dituzte, behar bezala frogatuak. Laneko esperientzia egiaztatu beharko da dagokion administrazioak egindako ziurtagirien bidez, non zehaztuko baita kontratuaren iraupena eta lanaren eginkizunak.

Lezoko Udalean emandako zerbitzuak eta laneko esperientzia, eskabidean adierazi badira, ez dira agiri bidez egiaztatu behar, eta izangai bakoitzaren espedientean azaltzen diren datuen arabera baloratuko dira.

Ez dira baloratuko eskabidean frogatzen edo zerrendatzen ez diren merezimenduak.

b) Horrez gain, eskabidearekin batera ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira:

- Nortasun agiri baten fotokopia.
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia.
- Eskatutako Hizkuntz Eskakizuna baduela eta hura eskuratua duela ziurtatzen duen jatorrizko agiria edo fotokopia konpulsatua.
- Eskabidean adierazi diren merezimenduak frogatzen dituzten jatorrizko agiri edo konpulsatutako fotokopiak, lehiaketa fasean balora daitezen.

Heziketa osagarriari buruzko merezimenduak frogatzeko aurkeztuko diren agirietan, heziketa horrek ordutan izan duen iraupena adierazi behar da.

c) Eskaerak, behar bezala beteta, Lezoko Unibertsitateko Udaleko Informazio Bulegoan aurkeztuko dira. Horretarako 10 lan egun izango dira, deialdi hau *Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean* argitaratu ondorenko egunetik hasita.

Horrez gain, herri-administrazioen araubide juridikoari eta prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 atalean aipatzen diren Herri-Administrazioetako erregistroetan ere sartu ahal izango dira eskabideak. Lezoko alkate-lehendakariari bidali beharko zaizkio, eta dagokion funtzionarioak jarri beharko die data eta zigilua, eskabideak aurkezteko epearen barruan.

Bosgarrena. Izangaiek onartzea.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, alkate - lehendakariak, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartu eta argitaraziko du Udaletxeko



Lezoko Unibertsitateko Udala

iragarki oholean eta www.lezo.net web orrian. Horrez gain, Epaimahaia osatuko duten kide titular eta ordezkioak ere izendatuko dira, ebazpen horretan.

Aipatutako zerrendatik kanpo gelditutako izangaiek, 2 laneguneko epea izango dute baztertze horretako akats edo hutsak zuzentzeko, zerrenda argitaratu ondoreneko egunetik hasita.

Behin-behineko zerrenda hori automatikoki behin betikotzat hartuko da, inolako erreklamaziorik egingo ez balitz. Erreklamaziorik balego, berriz, hauek onartu edo baztertu egingo dira, legokiekeen eran, aurreko zerrendaren modu bera erabiliz jendaurrean jarriko den behin betiko zerrenda onartzeko emango den ebazpen batean.

Ondoren, Epaimahaiak, oposizio ataleko lehenengo azterketaren eguna erabakiko du. Ebazpen hori Lezoko Udaleko iragarki-oholean eta www.lezo.net web orrian jarriko da.

Epaimahaiaren gainerako jakinarazpen eta komunikazio guztiak, Lezoko Udaleko iragarki-oholean eta www.lezo.net web orrian argitaratuz egingo dira.

Seigarrena.Epaimahai Kalifikatzailea.

Azterketako probak kalifikatuko dituen Epaimahaia kide titularrek eta ordezkioek osatuko dute. Horien guztien izendapena Udaleko iragarki-oholean eta web orrian argitaratuko da. Ondorengo hauek osatuko dute Epaimahaia:

Lehendakaria:Udal idazkaria.

Kideak: Udal arkitektoa, beste administrazio bateko teknikaria.

Epaimahaiaren idazkaria: Udal funtzionario bat.

Epaimahaia ezingo da osatu haren kideen erdia baino gehiago agertu ezean eta, nolana ere, han izan beharko dute lehendakariak eta idazkariak. Erabakiak, botoen gehiengoarekin hartuko dira eta, berdinketa gertatuko balitz, lehendakari lanetan ari denaren botoa izango da erabakigarria. Epaimahaiaren idazkariak ez du boto eskubiderik.

Egoki iritzitako probetarako, dagokion gaietan adituak diren pertsonen aholkua eta laguntza eskatu ahal izango du Epaimahaiak.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Epaimahaikideek ezingo dute parte hartu, eta hala adierazi beharko diote alkate-lehendakariari, eta izangaiek ere atzera bota ahal izango dituzte, indarrean den herri-administrazioen araubide juridikoari eta prozedurari buruzko Legearen 28. eta 29. ataletan xedatutakoaren arabera.

Epaimahaiak erabakiko ditu arau hauek ezartzerakoan sor daitezkeen zalantza guztiak eta aurreikusita ez dauden kasuetan nola jokatu behar den.

Zazpigarrena. Lehiaketa fasea.

Atal honetan, Epaimahaiak, ondorengo merituak baloratuko ditu, aurrez adieraziak eta behar bezala egiaztatuak izan badira:

a) Lan esperientzia: Herri-Administrazioan, oinarri hauen 2. oinarrian deskribatutako zer egin berdinetan edo baliokide diren eginkizunetan izandako esperientzia. Gehienez 20 puntutan baloratuko da, lan egindako hilabete bakoitzeko 0,25 puntu emango dira.

b) Beste titulazioa: IVAP/HAEEK antolatutako Hirigintza Ikastaroa edota beste Hirigintza Master ofizialik: 15 puntu aipatu ikastaro edo master bakoitzagatik.

IVAP/HAEEK antolatutako Hirigintza Ikastaroko titulurik ez, baina ikastaro horretako modulu bakoitzagatik 2,5 puntu emango dira eta gehienez 15 puntu.

c) Beste formazioa: Lanpostuarekin zerikusi zuzena duten gaietan, zentro ofizialetan, emandako prestakuntza ikastaroetan izatea edota ikastaroa gainditzea hauek 40 ordu baino gehiagoko iraupena izan beharko dutelarik. Gehienera 5 puntu emango dira baremo hauen arabera:

- 40 ordutik 100 ordu bitarteko ikastaro bakoitzarengatik: 0,75 puntu.
- 101 ordutik 200 ordu bitarteko ikastaro bakoitzarengatik: 1,25 puntu.
- 201 ordutik 300 ordu bitarteko ikastaro bakoitzarengatik: 2,00 puntu.
- 300 ordutik gorako ikastaro bakoitzarengatik: 3,00 puntu.

Lehiaketa fasea honen puntuaketa oposaketa faseko lehenengo bi ariketen puntuazioaren baturarekin lortu beharreko gutxieneko puntuazio lortu dutenei egingo zaie.

Zortzigarrena. Oposaketa fasea.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Deialdi bakarraren bidez egingo zaie ariketa bakoitzerako deia izangaiei, behar bezala justifikatu eta Epaimahaiak askatasun osoz aztertutako ezinbesteko arrazoi larriak izan ezik.

Lehenengo ariketa: Gaitasun-proba.

Test erako hainbat galdera erantzun beharko dira, funtsean lanpostuak eskatzen duen gaitasun intelektuala balioesteko.

Gaitasuna neurtzeko ariketan gehienez 10 puntu emango dira.

Bigarren ariketa: Elkarrizketa pertsonala eta nortasuna balioesteko proba.

Nortasun-ezaugarri orokorrak eta konpetentzia profesionalak ebaluatzeko elkarrizketa pertsonala burutuko izangaiekin, lanpostuari dagozkion funtzioak betetzeko hautagaiaren egokitasuna ebaluatze aldera.

Fase honetan, era berean, nortasuna balioesteko proba bat burutuko da.

Bigarren ariketa hau neurtzeko gehienez 25 puntu emango dira.

Bi ariketak egun berean egin ahal izango dira.

Puntuazio minimoa:

Bi ariketetako puntuazioa gehituta gutxienez 20 puntu lortu behar dira lan-poltsan sartzeko. Puntuazio horretara iristen ez direnak lan-poltsatik kanpo geratuko dira.

Gutxieneko puntuazioa lortu dutenei lehiaketa faseko puntuazioa gehituko zaie. Guztira lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko dira izangaiak.

Lehen bost izangaiek hirugarren ariketa egin beharko dute lehenengo bost postuen ordena erabakitzeko. Bost izangai hauetako inork ez baluke behin behingoz lanpostua hartuko zerrendako seigarren eta hamargarren postuetan daudenek egin beharko dute hirugarren ariketa beraien behin betiko hurrenkera erabakitzeko.

Hirugarren ariketa: Elkarrizketa teknikoa.

Oinarri hauetan deskribatutako lanpostuaren eginkizunekin zer ikusia duen elkarrizketa teknikoa egingo da.

Gehienera 25 puntu lortu ahal izango dira.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Proba horietako bakoitzaren ondoren, proba gainditu duten izangaien zerrenda argitaratuko da Udaletxeko iragarki-oholean.

Bederatzigarrena. Ariketen kalifikazioa eta gainditu dituztenen zerrenda.

Ariketa bakoitzaren kalifikazioa jendaurrean jarriko da Udaletxeko iragarki-oholean eta www.lezo.net web orrian.

Behin-betiko sailkapen ordena, oposizio eta lehiaketa faseetako ariketak elkartzat ateratako puntuen batuketak emango du.

Epaimahaiak, deitutako lan-poltsa osatzeko izangaiak egindako ariketen maila nahikoa ez dela iritziz gero, lan-poltsa osatu gabetzat deklaratu dezake.

Hamargarrena. Dokumentazioa aurkeztea.

Lan-poltsa erabiliz kontratu bat egin behar denean honako dokumentazioa aurkeztu behar du izangaiak, bi eguneko epean:

- a) Zinpeko aitortzea: Inolako diziplina-espediterik tarteko dela edozein Herri Administrazioaren zerbitzuetatik kanpo utzita ez egotea.
- b) Zuzenbidean lizentziatu titularen fotokopia konpultsatua.
- c) Lanpostuari dagozkion zereginak egoki betetzea galaraziko lukeen gaixotasun edo ezintasun fisikorik ez duela ziurtatzen duen sendagile-ziurtagiria.

Dagokion epealdian, eta ezinbesteko arrazoiek oztopatu ezean, proposatutako izangaiak ez balu eskatutako dokumentazioa aurkeztuko, edo dokumentazio hori aztertu ondoren aterako balitz eskatu diren baldintzetakoren bat ez duela, ezingo zaio kontraturik egin eta indarririk gabe geldituko dira hari buruz egindako jarduerak guztiak, faltsukeriagatik eska lekizkiokeen erantzukizunen kalterik gabe. Horrela gertatuz gero, puntuaketa zerrendan ondoren datorren izangaiaren aldeko proposamena egingo du horretarako eskuduntza duen organoak, eskatutako baldintzak beteko balitu, beti ere.

Hamaikagarrena. Lan poltsaren iraupena.

Lan poltsaren iraupena mugagabea izango da eta antzeko postuak betetzeko erabiliko da.

Hamabigarrena. Gorabeherak.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Epaimahaiak ahalmena du aukeraketa prozesua behar bezala joan dadin, Oinarrietan jaso gabeko guztiaz sor daitezkeen zalantza eta gora beherak erabakitzeko eta beharrezkoak diren erabakiak hartzeko.

Hamahirugarrena.Legeria osagarria.

Kontuan izan beharko dira beti ere Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; Erregimen Lokaleko gaietan indarrean dagoen lege xedapenak onartzen dituen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretua; Funtzio Publikoa birgaitzeko neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legea; Estatuko Administraritzaren Zerbitzu Orokorreko pertsonalaren sarrerako erregelamendu nagusia onartzen duen martxoaren 10eko 364/95 Errege Dekretua; Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailearen 6ko 6/1989 Legea; urriaren 17ko 224/1989 Dekretua, Eusko Jaurlaritzarena; ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretua eta azaroaren 18ko 16/1997 Legea, eta aplikagarri diren gainerako lege eta erregelamenduzko xedapenak.

Hamalaugarrena.Inpugnazioak.

Interesatuek, deialdi honen, bere oinarrien eta honen ondorioz datorren egintza administratibo ororen kontra, nola Epaimahai kalifikatzailearen jardunetik ondorioztatzen direnen kontra ere, jo ahal izango dute Administrazio Publikoetako Eraentza eta Administrazioarekiko jardunbidea arautzen duen azaroaren 26ko 30/1992 Legean (urtarrilaren 13ko 4/99 Legeak aldatua) eta Administrazioarekiko Auziak arautzen dituen uztailearen 13ko 29/1998 Legean aurreikusitakoaren arabera.